

# IKASTETXEAREN CURRICULUM PROIEKTUA (ICP)

## AURKIBIDEA

	<b>Orrialdea</b>
1. Sarrera	1
2. Ildo pedagogikoa	2
2.1. Oinarrizko hizkuntza-gaitasunak	2
2.2. Helburu orokorrak	2
2.3. Edukiak	3
2.4. Ebaluazioa	3
2.5. Metodologia	5
3. Tutoretzak	7
4. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleenganako arreta	7
5. Jarduera osagarriak eta eskola-orduz kanpokoak	8
6. Bilboko HEOkoko irakasleen prestakuntza-plana	9
7. Ikastetxearen Curriculum Proiektuaren (ICP) inplementazioa eta berrikusketa	9

## 1. SARRERA

Bilboko Hizkuntza Eskola Ofiziala 1969an sortu zen, Deustu auzoan, ondo komunikatutako hirigune batean, hain zuzen ere.

Helduei hizkuntzen irakaskuntza eskaintzeko ikastetxe publikoa da, Araubide Bereziko Irakaskuntzen barnekoa, eta izena emateko eskaera ugari izaten duena. Urtero ia 6.500 pertsona matrikulatzen dira ikasle ofizial gisa. Ikasle helduak direnez, ohikoena da hizkuntza-ikaskuntza ez izatea haien eginkizun nagusia, hau da, beste betekizun batzuk ere izaten dituzte –ikasketak, lana, familia–, eta dena uztartu behar izaten dute. Horren ondorioz, gure ikasleak eskakizun zorrotzekoak izan ohi dira, baina denbora libre gutxi dutenak, eta ikasketak uzteak ugariak izan ohi dira. Alderdi horiek baldintzatu egiten dute irakasleen lana.

Bilboko Hizkuntza Eskola Ofizialak, bestalde, bertan irakasten diren zortzi hizkuntzen jakite-maila egiaztatzen duten agiri ofizialak ematen ditu; hortaz, Oinarrizko maila (A2), Tarteko maila (B1), Tarteko maila (B2) eta maila Aurreratua (C1) egiaztatzeko agiriak ematen ditu, betiere, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoan (HEEM)<sup>1</sup> ezarrita dagoenaren arabera. Egiaztatze-probetara aurkeztu daitezke bai klaseetara joateko matrikula ofiziala egin duten ikasleak, bai modalitate librean matrikulatutakoak (Euskarako C1 mailakoak salbu). 2020-21 ikasturtean, 2.100 ikasle libre inguru izan genituen.

Baliabide materialei dagokienez, gela guztiek dute Internetarako konexioa, ordenagailua, proiektorea, pantaila digitala (Erreka-Mari Institutuarekin batera ditugun zenbait gelatan salbu, haietan pantaila zuria baitago); bestalde, Mediateka / Liburutegia ere badugu, eta bertako liburuak, aldizkariak eta filmak maileguan uzten ditugu. Teknologia berriak gelara ekarri, eta ikasleen ikasketa autonomia bultzatzen dugu. Horretaz gain, baditugu Kafe Txokoa, Ekitaldi Areto handi bat eta beste bat, txikiagoa. Erabilera askotariko espazio horiek azterketak egiteko eta Hizkuntza Mintegiek antolatzen dituzten askotariko kultura-ekitaldiak egiteko erabiltzen dira, besteak beste, hitzaldiak, kontzertuak, antzerki-ikuskizunak, ipuin-kontaketak, lehiaketa gastronomikoak, azokak, etab. Ikasleek, bestalde, askotariko erabilera ematen diote Kafe Txokoari, han egiten baitituzte talde-lanak, mintzapraktikak, etab.

77 bat irakaslek osatzen dute gure plantilla, eta Ingelesa, Euskara, Frantsesa, Alemana, Italiara, Gaztelania atzerriko hizkuntza gisa, Portugesa eta Errusiera irakasten dute, HEEMren mailen arabera:

- ✓ Oinarrizko Maila 1 (A1)
- ✓ Oinarrizko Maila 2 (A2)
- ✓ Tarteko Maila 1 (B1)

---

<sup>1</sup> Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratua. Europako Kontseilua.

- ✓ Tarteko Maila 2 (B2.1)
- ✓ Tarteko Maila (B2), Errusiera salbu
- ✓ Maila Aurreratua (C1), Errusiera salbu

Hezkuntza-agintarien eskutik, Ingeles, Frantses, Aleman, Errusiera eta Italiako Mintegiek *Elkarrizketa Laguntzaileak* izan ohi dituzte, ikasleen ahozko gaitasuna indartzeko.

EAEko bi hizkuntza ofizialak erabiltzen dira gehienbat barne-komunikazioan, hau da, euskara eta gaztelania; ildo horretan, kontuan hartuta euskara egoera diglosikoan dagoela gaztelaniarekiko, gure zentroan ekimen ugari egiten dira euskara inplementatzearen alde, euskara eta gaztelania parekide izan daitezen hierarkian eta erabileran. Ildo beretik, hizkuntza-eskola bat izanik, bertan irakasten diren gainerako hizkuntzak ere erabil daitezten sustatzen da. Bestalde, kontuan hartuta ikasleak jatorriz nazionalitate askotarikoak izan ohi direla (70etik gora nazionalitate), ez da batere arraroa beste hizkuntza asko entzutea aipatutakoez gain.

## 2. ILDO PEDAGOGIKOA

### 2.1. Oinarrizko hizkuntza-gaitasunak

Gai honi dagokionez, hauexek dira erregimen bereziko irakaskuntzen erreferentziako lege-testuak:

- 1014/2017 Errege Dekretua, abenduaren 22koa, Erregimen bereziko hizkuntzen irakaskuntzako tarteko B1 mailako, tarteko B2 mailako, C1 maila aurreratuko eta C2 maila aurreratuko curriculumaren oinarrizko alderdiak finkatzen dira dekretu horretan. Hezkuntzako 2/2006 Lege Organikoak, maiatzaren 3koa, arautzen ditu Erregimen bereziko hizkuntzak.
- 80/2019 Dekretua, maiatzaren 21koa. Euskal Autonomia Erkidegoan araubide bereziko hizkuntza-irakaskuntzen ezarpena xedatzen duena, irakaskuntza horietako oinarrizko A1 mailaren, oinarrizko A2 mailaren, tarteko B1 mailaren, tarteko B2 mailaren, C1 maila aurreratuaren eta C2 maila aurreratuaren curriculumarekin batera.

Hala, dekretu horietan ezarritakoaren arabera, hizkuntzak ikasteko beharra edo nahia duten pertsona helduei eskaintzen zaizkie ikasketa hauek, maila pertsonalean, profesionalean edo akademikoan baliatzeko. Hizkuntza bat ikastea hizkuntza hori erabiltzen jakitea da, eta, horregatik, ikasketaren helburua da hizkuntza-gaitasuna areagotzea, edozein izanda ere komunikazio-egoera, ulertzeko, adierazteko eta elkarreraginean jarduteko gaitasuna helburu duela. Gaitasun komunikatiboak hiru osagarri ditu<sup>2</sup>: linguistikoa, soziolinguistikoa eta pragmatikoa, eta bakoitzak beste zenbait trebetasun eta ezagutza hartzen ditu barnean. Gaitasun

---

<sup>2</sup> Europako Hizkuntzen Erreferentzia Marko Bateratua. Europako Kontseilua.

linguistikoen baitan, lexikoari, fonologiari eta sintaxiari dagozkion trebetasunak eta ezagutzak daude. Gaitasun soziolinguistikoek erreferentzia egiten diete hizkuntza-erabileraren ezaugarri edo baldintza soziokulturalei. Gaitasun pragmatikoak, berriz, diskurtsoa menderatzearekin eta hizkuntza-baliabideen erabilera funtzionalarekin du zer ikusia.

## 2.2. Helburu orokorrak

- ✓ Hizkuntza erabiltzen irakatsi, bost trebetasunei dagokienez –ahozko zein idatzizko ulermena eta adierazmena–, hala nola, interakzio/bitartekaritza funtzioetan, betiere, ikasketa-prozesuaren unean uneko menderatze-mailaren arabera. Trebetasun, gaitasun eta mailen arabeko helburu zehatzak lehen aipatutako 80/2019 Dekretuan deskribatzen dira.
- ✓ Hainbat esparrutako egoerak lantzea –eskola, familia, lan nahiz aisialdikoak–, eta egoera horien alderdi soziokulturalak sakontzea.
- ✓ Kultura ezberdinei buruzko ikuspuntu irekia eta aberasgarria sustatzea.
- ✓ Ikasleengan ikasteko gogoia bultzatzea, eta ikasketa-prozesuaren gaineko haien autonomia indartzea, askotariko estrategiak, azturak, bideak eta tresnak emanez.
- ✓ IKTak gero eta gehiago baliatzea ikas-prozesuan.
- ✓ Izaera sexista, arrazista eta homofoboa izan dezakeen material oro deuseztatzea, eta berdintasun-irizpideen alde jokatzeko, bai emakumeen eta gizonen artekoaz, bai hautu sexual ezberdinen artekoaz, bai arraza edo jatorri ezberdineko pertsonen artekoaz.
- ✓ Hezkuntza-premia bereziak dituzten pertsonen laguntzea, haien ikas-prozesua errazte aldera.

## 2.3. Edukiak

Ikasketa-edukiak bat datoz 2.1. atalean aipatutako gaitasunekin. Nozio-edukiez gain (entitateak, propietateak eta erlazioak), badira eduki soziokulturalak, lexikoari eta semantikari dagozkionak, gramatikalak, ortografikoak, fonetikoak, soziolinguistikoak, funtzionalak eta diskurtsiboak ere. Mailaz mailako edukien zerrendak osorik agertzen dira lehen aipatutako bi lege-testuetan: 1041/2017 Errege Dekretuan eta 80/2019 Dekretuan.

Benetako komunikazio-egoeretan, gaitasun guztiak aldi berean aktibatzen dira, eta edukiak marko esanguratsu batean integratu behar dira trebetasun bakoitzarentzat ezarritako helburuak lortzeko, proposatutako ataza eta jarduera komunikatiboen bidez.

## 2.4. Ebaluazioa

Ebaluazioari dagokionez, hauexek dira erreferentziazko lege-testuak:

- 1014/2017 Errege Dekretua, abenduaren 22koa, Erregimen bereziko hizkuntzen irakaskuntzako tarteko B1 mailako, tarteko B2 mailako, C1 maila aurreratuko eta C2 maila aurreratuko curriculumaren oinarriko alderdiak finkatzen dira dekretu horretan. Hezkuntzako 2/2006 Lege Organikoak, maiatzaren 3koak, arautzen ditu Erregimen bereziko hizkuntzak.
- 80/2019 Dekretua, maiatzaren 21ekoa. Euskal Autonomia Erkidegoan araubide bereziko hizkuntza-irakaskuntzen ezarpena xedatzen duena, irakaskuntza horietako oinarriko A1 mailaren, oinarriko A2 mailaren, tarteko B1 mailaren, tarteko B2 mailaren, C1 maila aurreratuaren eta C2 maila aurreratuaren curriculumarekin batera.
- 1/2019 Errege Dekretua, aurtarrilaren 11ko. Erregimen bereziko hizkuntzairakaskuntzako tarteko B1 mailaren, tarteko B2 mailaren, C1 maila aurreratuaren eta C2 maila aurreratuaren ziurtagiria eskuratzeko probetarako ebaluazio-oinarri bateratuak ezartzen ditu.
- EAEko Hizkuntza Eskola Ofizialetako B1 mailaren ziurtagiria eskuratzeko Azterketa Zehaztapenen dokumentua.

Gure zentroan, Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako HEO guztiekin koordinatuta, hiru ebaluazio mota egiten ditugu: diagnostiko-ebaluazioa, aurrerabidearen ebaluazioa eta gaitasun-mailaren ebaluazioa.

Diagnostiko-ebaluazioa ikasle berriek egin behar dute: gure webgunean jarrita dauden test batzuk dira, “Autoebaluazio probak ikasle berrientzat” izenburupean. Autoebaluazio-probak berberak dira Euskal Autonomia Erkidegoko HEO guztietan, eta haien helburua da ikasleak jakin dezan zein den bere hizkuntza-maila, zentroan matrikulatzerakoan berari dagokion maila eskatzeko.

Ikasleen aurrerabidea neurtzeko ebaluazio-proba, berriz, mintegi bakoitzak diseinatu du; haren helburua da egiaztatzea ikasketa-prozesuak bilakaera egokia duela, eta, hala izango ez balitz, aukera emango du ikasketa planifikatu eta berrantolatzeko, indartze-jarduerak aplikatzeko eta ikasle bakoitzari hobeto egokitzen zaizkion ikas-estrategiak bilatzen laguntzeko. Ikasturtearen erdialdera egiten da, eta, besteak beste, honako proba hauek hartzen ditu barnean: ikasturte bukaeran egingo denaren antzeko idatzizko proba, ahozko zein idatzizko ulermena, bitartekaritza eta idazmena neurtuko duena. Bestalde, mintegi bakoitzak erabakitako maiztasunez, kontuan hartuko dira gelan egindako idatzizko eta ahozko testuak. Irakasleak ikasleari bere aurrerabidearen berri emango dio idatzizko probak zuzendu –hazteko batzuk egiaztatze-probetan baliatuko diren ebaluazio-irizpideen arabera puntuatuta– eta mintzamen-probak balioetsi ondoren –proba hauek ere egiaztatze-probetan egingo dituztenen antzekoak izango dira, eta ebaluazio-irizpide berak erabilita–.

Gaitasun-mailaren ebaluazioaren bidez, azkenik, jakingo da ea ikasleak maila jakin bateko helburuak lortu dituen, trebetasun guztietan lortu ere, eta, hortaz, ea hurrengo mailara pasatzeko dagoen. Maila bakoitzeko azken ikasturtean –A2, B1, B2.2 eta C1–, bukaeran, egiaztatze-proba bat egiten da, eta, gaituz

gero, ikasleak dagokion mailaren ziurtagiri ofiziala jasotzeko eskubidea du: Oinarrizkoa, Tartekoa 1 eta Tartekoa 2, eta Aurreratua. Egiaztatze-proba hori berbera da Euskal Autonomia Erkidegoko HEO guztietan, eta egun berean egiten da, hala ikasle ofizialei nola libreei. Ebaluazio Batzordeak prestatu eta idazten ditu egiaztatze-probak. Koordinakunde batek eta hizkuntza bakoitzeko zenbait irakaslek –denak HEOetakoak– osatzen dute batzorde hori, eta, probak idatzi ez ezik, haiei buruzko alderdi guztiak zehaztu eta ezagutarazteko ardura ere badauka:

- ✓ Egitura: proba guztien deskribapena eta iraupena
- ✓ Testu-motak eta helburuak
- ✓ Ataza-mota eta kopurua
- ✓ Puntuazioa: bai gutzizkoa, bai gutxienekoa egiaztatze-proba gainditzeko
- ✓ Ebaluazio-irizpideak trebetasun bakoitzeko
- ✓ Azterketa-ereduak

Informazio hori guztia eskuragarri dago gure webgunean: [www.heoibilbao@hezkuntza.net](http://www.heoibilbao@hezkuntza.net)

Egiaztatze-proba gainditzera bideratuta ez dauden mailetan –A1 eta B2.1–, gaitasun-maila ebaluatzeko, kontuan hartuko dira, batetik, bost trebetasunetan lortutako maila neurtzen duen proba baten emaitzak –proba horiek mintegi bakoitzak prestatuko ditu, eta ikasturtearen bukaeran egingo dira–, eta, bestetik, ikaslearen hizkuntza-gaitasunen balorazioa, ikasturtean zehar egindako ebaluazio jarraituan oinarritua. Horretarako, ikasturte hasieran mintegi bakoitzak zehaztuko du zer jarduera ebaluatuko diren –idazlanak, gelako parte-hartzeak, irakurketak, aurkezpenak, etab.–, eta irakasleek eurek kalifikatuko dituzte. Probaren nota azken kalifikazioaren %60 izango da, eta ebaluazio jarraituaren nota, berriz, %40. Ebaluazio jarraituaren notarako eskubidea ez galtzeko, ikasleak proposatuko diren jardueren %75 egin beharko du gutxienez. Ehuneko hori betetzen ez badu, ikasturte bukaerako probaren kalifikazioa baino ez da kontuan hartuko.

Bestalde, eta kontuan hartuta klaseetara joatea nahitaezkoa dela, justifikatu gabeko hutsegiteak mugatuta egongo dira, gehienez ere ikasturte osoaren %25. Kopuru horretatik gora, ikasleak klaseetara joateko eskubidea galduko du, bai eta ebaluazio jarraitua eta aurrerabidea neurtzeko izateko eskubidea ere. Dena dela, bermatuta izango du beti maila gainditzeko eta egiaztatzeko probak egiteko eskubidea.

## 2.5. Metodologia

Irakaskuntzaren ardatza ikaslea bera izango da, haren komunikazio-gaitasuna garatzea. Ikuspegi horretatik, nahitaezkoa da kontuan hartzea ikaslearen errealitatea, bera izango baita prozesu didaktiko osoaren erdigunea, eta helburua izango da ikasleak bere gain har dezan bere ikas-prozesuaren gaineko

erantzukizuna, *eginez ikasten da* printzipioan oinarrituta. Irakaste-ikasteari begirako praktika guztiek ikaslearen jarduna eta ekimena bilatuko dute ahalik eta denbora gehienez.

Lehentasuna emango zaie benetako komunikazio-egoeretan egindako jardueri; izan ere, helburua izango da erabilitako metodoek, materialek eta baliabideek ikaslea ahalik eta gehien hurbiltzea xede-hizkuntzan izango duen esperientzia zuzeneko egoeretara.

Xede-hizkuntzaren irakaskuntza, gehienbat, hizkuntza berean egingo da, hizkuntzarekiko esposizio-denbora ahalik eta handiena bermatzeko. Oro har, hauek izango dira bideak:

- ✓ Hizkuntzaren benetako erabilerarekiko esposizio zuzena (jatorrizko hitzunik, irratia, telebista, prentsa...), bai eta helburu horri begira berariaz sortutako edo egokitutako testu idatziak eta ahozko enuntziatuak ere.
- ✓ Parte-hartze zuzena komunikazio-interakzioetan, solaskide adituekin edo maila berekoekin.
- ✓ Parte-hartze zuzena askotariko ataza eta jardueretan.
- ✓ Aurkezpen, azalpen, ariketa eta ustiatze-jardueren konbinaketa.
- ✓ Banakako lana eta taldekakoa.
- ✓ Ikasketa autonomoa.

Ikus-entzunezko baliabideak ahalik eta gehien baliatuko dira, besteak beste:

- ✓ Klase guztiarentzako azalpenetan.
- ✓ Ikasketa autonomoan.
- ✓ Banakako zein taldekako lanetarako oinarri gisa.
- ✓ Beste solaskide batzuekin modu interaktiboan aritzeko baliabide gisa.

Bestalde, funtsezkoa izango da ahozko zein idatzizko testuen erabilera:

- ✓ Testuak benetakoak, egokitutakoak edo berariaz sortutakoak izango dira, eta ikasleak testu horiekiko esposizioaren bitartez ikasiko du; horretarako, ulermenari begirako aurretiazko jarduerak, azalpenak, itzulpenak eta ulermena kontrolatzeko ariketak egingo dira.
- ✓ Testu-ekoizpenari dagokionez, askotarikoak izango dira:
  - Ahozkoak: ahots gora irakurritako testu idatziak, ariketei buruzko ahozko erantzunak, eztabaidetan parte-hartzea, elkarrizketa libreak, aurkezpenak...
  - Idatzizkoak: diktaketak, ariketa idatziak, idazlanak, lanak, gutunak, mezu elektronikoak...

Komunikazio-estrategiak garatzeko, ikasleak askotariko jarduera eta egoeren aurrean jarriko dira, non planifikatu, egin, ebaluatu eta zuzentzeko eragiketak egin beharko dituzten (esate baterako, rol-jokoak edo simulazioak).

Kasuan kasuko mailari dagokion gaitasun linguistikoa lortzeko, honako alderdi hauek jorratuko dira:

- ✓ Hiztegia: argibideak, hiztegietan bilatzea, berrerabiltzea, irudi bidezko laguntza, memorizazioa, itzulpena, eremu semantiko eta morfologikoak.
- ✓ Gramatika: jabetze inductiboa, argibide, azalpen eta askotariko ariketen bidez.
- ✓ Ahoskatzea: benetako enuntziatuekiko argibideak, jatorrizko hitzunen grabazioetan eta irakasleari entzundakoaren imitazioa, ahots gorako irakurketak, belarria fintzeko ariketak eta errepika-ariketa fonetikoak, idatzizko formak egoki ahoskatzeko arauak ikasita.
- ✓ Ortografia: argibideen eta ariketen bidez.

Gaitasun soziolinguistikoa bi bidetatik garatuko da: batetik, transferentzia bidez, ikasleak berak gizarte-bizitzaz duen esperientziatik; bestetik, xede-hizkuntza bere gizarte-ingurunean benetan erabiltzen den moduan erabilia, eta, hala, ikas-prozesuan zehar aterako diren desberdintasun soziolinguistikoak azalduko dira, baita desegokitasunak eta akatsak zuzendu ere.

Gaitasun pragmatikoei dagokienez, ikasleak berak transferentzia egingo du heziketa bidez jasotakotik eta ama-hizkuntzari buruzko bere esperientzia orokorretik. Aldi berean, ikaslearen gaitasun pragmatikoa urratsez urrats garatuko da, aurkezten zaizkion testuen, atazen eta ariketen funtzionaltasuna, batetik, eta diskurtsoaren egituraren konplexutasuna bera, bestetik, areagotzen diren heinean.

Azkenik, bada oso garrantzitsua den beste alderdi metodologiko bat: nola jokatu hutsegiteen eta akatsen aurrean. Hutsegiteak ikas-prozesuaren emaitza iragankorrak dira, ezinbestekoak, eta halaxe hartuko dira. Irakasleak zuzendu, aztertu eta azalduko ditu unerik egokienean, betiere, komunikazioa moztu gabe, eta soilik helduko die akats sistematikoei edo komunikazioa eragozten edo zailtzen dutenei. Aurreko atalean adierazi denez, ebaluazioa ez dago zuzentasunean soilik oinarrituta; beste irizpide batzuk ere kontuan hartzen dira, besteak beste, egokitasuna, koherentzia, kohesioa, aberastasuna, zehaztasuna, jarioa, adierazgarritasuna...

### 3. TUTORETZAK

Ikaslearen orientazioa eta tutoretza irakaslearen lanaren parte osagarria da, eta irakasle bakoitzak bere ikasle guztien tutoretza-lana egingo du. Alderdi horretatik, honako eginkizun hauek izango ditu:



- ✓ Ikasle bakoitzaren jarraipena egingo du, eta agiri idatzietan jasoko ditu azken probetan ateratako emaitzak, klasera egin dituen hutsegiteak eta datu aipagarri guztiak.
- ✓ Klaseetara ez etortzeak kontrolatuko ditu, eta aldiro komunikatuko ditu aplikazioaren bidez.
- ✓ Ikaslea adingabea bada eta klaseetara etortzeari uzten badio, horren berri emango die gurasoei edo tutoreei, posta elektronikoko bidez, betiere, justifikatu gabeko bigarren faltaren ondoren; bestalde, zentrotik atera behar denerako, idatzizko baimena tramitatuko du.
- ✓ Ikasturte hasieran, ikasleei jakinaraziko die zeintzuk diren programazioaren helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak, eta, ikasturtean zehar, euren ikas-prozesuaren garapenaren berri emango die.
- ✓ Ikasle bakoitzaren jarraipena egingo du, eta helburua izango da haren ikas-prozesuaren zailtasunak detektatu, aztertu eta haiei konponbideak bilatzea, bai eta haiei erantzuteko biderik egokienak proposatzea ere.
- ✓ Aholkua emango dio ikasle bakoitzari –edota haren galderei erantzun–, haren ikas-prozesua indartzeari begirako material edo jardueri buruz. Eginkizun horretarako, Ikasturte Hasierako Ebazpenean arauz ezarritako *ikaslearen arretarako orduak* baliatuko ditu; bestalde, lan hori egin ahal izango du bai ikaslearekin aurrez aurre, zentroan bertan egingo diren elkarrizketen bidez, bai posta elektronikoko edo telefono bidez.
- ✓ Ikasleei jakinaraziko die eskolaz kanpoko zer jarduera osagarri antolatzen diren eurentzat zentroan bertan.
- ✓ Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen kasuan, Zuzendaritzak hitzartutako egokitzapenak bideratuko ditu irakasleak.

#### 4. **HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK DITUZTEN IKASLEENGANAKO ARRETA**

Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuaren barnean (IHP), helburuetako bat da hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei laguntzea, haien ikas-prozesua errazte aldera. Horrenbestez, lehen aipatutako 46/2009 Dekretuaren 11. artikulua arabera eta *Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren 2013ko uztailaren 3ko Aginduan, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza-eskola ofizialetan ikasleak onartu eta matrikulatzeari buruzkoan*<sup>3</sup>, 5.10 artikuluan ezarritakoaren arabera, matrikula egiterakoan, ikasleek justifikatu egin beharko dute badutela alegatu nahi duten desgaitasuna, eta behar dituzten egokitzapenak eskatuko dituzte, izan curriculumaren egokitzapenak, klaseak jarraitu ahal izateko, izan ziurtagiri ofizialak lortzeko proben egokitzapenak.

---

<sup>3</sup> EHAA, 139. zk., 2013ko uztailaren 22koa.

Behin jakinda zeintzuk diren eskatutako egokitzapenak, zentroko ikasketaburuak koordinatu eta antolatuko du, inplikaturako estamentu guztiak batera –langile ez-irakasle, mintegiburu, irakasle eta Ebaluazio Batzordeko kideekin batera–, eskaerei eman dakiekeen erantzuna, betiere, zentroaren baliabideen muga edo baldintzen barnean.

Irisgarritasunari dagokionez, zentroan lan-erreforma batzuk egin ziren duela urte batzuk, eta, hala, orain, mugikortasuna murriztuta duten pertsonak oztopoz libre dituzte bertako espazio guztiak: gelak, komunak, Mediateka/Liburutegia, Ekitaldi Aretoa eta Kafe Txokoa.

## 5. **JARDUERA OSAGARRIAK ETA ESKOLA-ORDUZ KANPOKOAK**

Mintegiek hainbat kultura-jarduera antolatzen dituzte zentroan bertan zein zentrotik kanpo, gela barnean eskola-orduetan –eta gelaz kanpo modu autonomoan– egiten den lana osatzeari begira, betiere, helburua izanik komunikazio-gaitasuna areagotzea, hizkuntza ikasteko gogoia sustatzea eta gure artean diren kultura ezberdinekiko ikuspuntua zabaltzea eta aberastea.

Jarduera osagarriek, orobat, beste helburu bat dute, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuak (IHP) jasotzen duena: “Xede-hizkuntzak ardazten duen kultura ezagutzea”.

Urtero, ikasturtearen hasieran, Mintegiek jarduera osagarrien programazioa osatzen dute, eta Ikastetxearen Urteko Planean jasota gelditzen da; behin ikasturtea bukatuta, jarduera osagarriak ebaluatu egingo dira, eta ebaluazioaren emaitzak, berriz, Urteko Memorian jasoko dira. Helburua da ahalik eta ikaslerik gehienek parte har dezaten jarduera horietan, eta, horretarako, zenbait diru-partida ezartzen dira beren-beregi horretarako urteroko aurrekontuan.

Jarduera osagarriak askotarikoak dira; hona hemen batzuk:

- ✓ Elkarrizketa informalak Kafe Txokoan
- ✓ Hitzaldiak eta tailerrak
- ✓ Azokak
- ✓ Errezitaldiak
- ✓ Proiektzioak
- ✓ Lehiaketak (gastronomia, argazkilaritza, literatura, ezagutza oro har...)
- ✓ Xede-hizkuntzaren kulturako festa esanguratsuen ospakizunak
- ✓ Gertaera historikoen ospakizunak

Eskolaz kanpoko jarduerak irteerak izaten dira, besteak beste:

- ✓ Erakusketetara, eta azalpenak xede-hizkuntzan izango dira
- ✓ Hiriko leku esanguratsuetara, eta azalpenak xede-hizkuntzan izango dira

- ✓ Xede-hizkuntzan ematen diren ikuskizunetara edo xede-hizkuntzako autore eta konpositoreen emanaldietara

## 6. **BILBOKO HEOKO IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA PLANA**

Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuak (IHP) ezartzen duenez, helburuetako bat da “irakasleen etengabeko prestakuntza eta eguneratzea”. Bestalde, Ikasturtearen Hasierako Ebazpenaren ezarritakoaren arabera, astean ordubete eskainiko zaie prestakuntza-jarduerei.

Horrenbestez, Ikastetxearen Urteko Ekintza Planean urtero jasotzen da irakasleen prestakuntzari buruzko jardueren programazioa. Jarduerak askotarikoak izan ohi dira, baina denek dute helburu bera: irakasleek detektaturiko beharrei erantzutea. Prestakuntza-jarduerak ere ebaluatu egiten dira, eta ebaluazioaren emaitza ikasturtearen amaierako Memorian jasotzen da.

Hona hemen prestakuntza-jarduera batzuk:

- ✓ Zentroak berak bertan antolatutako prestakuntza-jarduerak, bertako irakasleek edo kanpotik ekarritako adituek emanak. Irakasle guztientzat izaten dira, hizkuntzari erreparatu gabe.
- ✓ EAEko Hizkuntza Eskola Ofizialek batera antolatutako prestakuntza-jarduerak, HEOetako irakasleek edo kanpotik ekarritako adituek emanak. EAEko HEOetako irakasle guztientzat izaten dira, hizkuntzari erreparatu gabe. Halako jarduerak gastua optimizatzeko aukera ematen dute, eta irakasleei, berriz, beste zentro batzuetako irakasleekin harreman-trukeak egiteko bidea errazten diete.
- ✓ Mintegi bakoitzak bere irakasleentzat antolatutako prestakuntza-jarduerak, mintegi bakoitzaren berariazko beharrei erantzuteko.

Prestakuntza-arloak askotarikoak dira; hona hemen nagusiak:

- ✓ IKTak eta ikaskuntza-plataformak
- ✓ Irakasteko metodologiak
- ✓ Irakasleen hizkuntza eguneratzea
- ✓ Hizkuntza-trebetasunak ebaluatzeko irizpideak bateratzea
- ✓ Egiartzatzeko probak osatzea
- ✓ Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleenganako arreta

Ahal den guztietan saiatzen gara prestakuntza-jarduerak Hezkuntza Sailaren PREST GARA programaren barnekoak izan daitezen, aprobetxamendu-ziurtagiria lortu eta diru-laguntzak jasotzeko.

#### 7. **IKASTETXEAREN CURRICULUM PROIEKTUAREN INPLEMENTAZIOA ETA BERRIKUSKETA**

Behin Ordezkaritza Organo Gorenak (OOG) bere onespena eman ondoren, Ikastetxearen Curriculum Proiektua (ICP) hizkuntza-mintegi guztietan banatuko da, eta ZORen utziko da, irakasleei jakinarazita. Une horretan bertan jarriko da indarrean.

Nolanahi ere, kontuan hartuko dira ICPa berrikusi edo aldatzeko eskaera eta proposamen guztiak, eta Batzorde Akademikoak aztertuko ditu. Hala, Batzordeak berak erabakiko du bidea eman edo ez proposamenari, Mintegietan eztabaida dezaten. Baiezko kasuetan, Mintegietan eztabaidatu ondoren, Klaustroak onartu beharko du, eta, azkenik, OOGk berak.